



ONDARROAKO UDALA

Ondarroako Udaleko Ingurumen Batzordearen akta

Noiz: 2019-05-06

Lekua: Udaletxeko bigarren solairuan

Gaiak:

- Aurreko akta onartzen da

- HONDAKINAK:

- Ondarroa heldu da hondakinen %50 sailkatzera
- Helburua %70era ailegatzea da, eta pausu gehiago ematen joan behar gara
- Dendetan atez ateko zerbitzua ipini da martxan, kartoia eta ontzi arinak jasotzeko, eta horrela edukiontziek gainez ez egiteko. Honekin sailkapena zenbat igoko den ikusi behar dugu hurrengo hileetan

- TXAKURRAK:

- Udalak bigarren aldaketa bat egin dio txakurren ordenantzari
- Txakurrak solte ibiltzeko lekuak eta orduak zehaztu dituelako. Mapa txakur jabeei bidaliko zaie. Kaleetan kartelak ipiniko dira hau dena azaltzen, eta kaka jaso egin behar direla adierazten.
- Hau dena txakur jabe elkarteagaz landu da.
- Hirigintza batzordetik ere pasatu da, eta goizean ordutegia 9rak arte luzatzea proposatu da
- Txakurren txipak berritzeko kanpaina egin da
- Udaltzainek txipak irakurtzeko makina erosi dute
- Hurrengo pausoa kaken ADN proba egitea izan daiteke, baina garestia da
- Udalak bere ardurapean 7 txakur zeuzkan txakurtegia, baina 5 adopzioan eman ditu.

- 4 URTEKO BALORAZIOA:

- Udalak lau urtean ingurumen arloan egin dituenak erreparasatu ditu:
- Hondakin sistema berriagaz %50 sailkatzera heldu gara.
- Txakurren ordenantza berri da.
- LED argiak ipini dira itsas aurrean, Ibaiondoko parkean, Musika Plazan. Etorkizunean kontratatutako potentzia jaisteko ahalegina egingo du udalak, gutxiago ordaintzeko.
- Bizikleta aparkaleku asko beteta egoten dira (Alamedakoa, Etxelilakoa...), eta gehiago ipini behar dira.
- Eguzki taldeak bere balorazioa egin du:
- Hondakinen arloan eman diren pausok positiboak dira. Traste txikiak batzeko sistema aldatzea proposatu dute, leku finko bat ipinita.
- Kanean papelera selektibo gehiago ipintzea proposatu dute.
- Atxazpi berreskuratzeko pausok emateko eskatu dute. Udalak erantzun du ikerketa egin zela eta lekua ez dela establea. Panpa belarrak kendu eta artak landatzea proposatu du.
- Eguzkik eskatu du energia berriztagarriak kontsumitzeko enpresaz aldatzea. Udalak esan du orain amaitzen dela kontratua, eta aztertuko dela (orain Diputazioaren bidez kontratatzen da, beste herri batzuekin batera).

- Eguzkin proposatu du Alleri berreskuratzen jarraitzea. Udal teknikoak esan du Diputazioak arbolak landatu dituela Erreterian. Udalak azaldu du lur jabeek ez zutela baimenik eman makinak paduran sartzeko eta lurrezko hormak botatzeko, eta naturari bere bidea egiten lagatzea erabaki zela. Ura horma horiek botatzen ari dela apurka apurka. Eguzkik eskatu du torreta elektrikoa kentzeko tramiteak egiteko.
- Eguzkik esan du panpa belarrak kentzeko zeozer egin behar dela. Uztailean kentzea komeni dela, haziak bota aurretik. Eroskiri berriro gutuna bidaltzeko eskatu dute, euren lurretan panpa belarra kentzeko eskatuz. Ur partzuergoari ere bai. Alkateak esan du Atxazpikoak udalak kenduko dituela.
- Isurketen kasuan, ur fekalak botatzen diren puntuekin zeozer egiteko eskatu du Eguzkik. Teknikariak ardura hartu du aztertzeko Alleri aurreko puntuaren konponketa noren ardura den. Udalak azken asteotan egon diren isurketak salatu ditu. Konpromisoa hartu du Herrizaingo sailarekin eta Hezkuntzarekin batzeko, eta hiruren artean Zaldupeko uren kanalizazioa egiteko.
- Eguzkin proposatu du batzordeko akta, batzarra egin eta hurrengo 15 egunetan bidaltzeko, eta hurrengo batzarraren aurretik ere bai.

AGENDA 21

- 3 teknikari udaletik joan dira, eta 3 berri etorri dira. Horrek dena atzeratu du.
- Teknikariak aste honetan deituko die ikastetxeei, falta dena konpontzeko.
- Aurtengo aurrekontuak onartzen direnean, hurrengo dirulaguntza deialdia egingo da.